

Konrado Mugertza jn.
Javier del Campo jn.
Gaizka Gabantxo jn.
Iosu Gangoiti jn.
Miren Izagirre and.
J. Ramón Kortabitarte jn.
Gonzalo Larruzea jn.
Raimundo Rubio jn.
Eva Blanco and.
Idazkari Teknikoa.

07/20 IRIZPENA

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren 2007ko abenduaren 13ko bilkurara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek adostasunez eman du ondoko irizpena: 0 eta 3 urte bitarteko haurrentzako Haur Eskolek bete behar dituzten gutxieneko baldintzak xedatzen dituen azaroaren 16ko 215/2004 Dekretuaren lehen azken xedapena garatzen duen Agindu proiektuari buruz.

I.- AURREKARIAK

Hezkuntzarako Eskubidea arautzen duen uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoaren 14. artikulua xedatzen du ikastetxe guztiek gutxieneko baldintza batzuk bete behar dituztela irakaskuntzaren kalitatea bermatzeko.

Azaroaren 16ko 215/2004 Dekretuak 0 eta 3 urte bitarteko haurrentzako Haur Eskolek bete behar dituzten gutxieneko eskakizunak xedatzen ditu eta indarrean mantentzen ditu abenduaren 17ko 297/2002 Dekretuaren hainbat artikulua. Abenduaren 17ko 297/2002 Dekretuak EAeko 0 eta 3 urte bitarteko haurrentzako Haur Eskolak arautzen ditu 2002-2003 eta 2003-2004 ikasturteetarako.

II.- EDUKIA

Agindu proiektu honek 4 artikulua, xedapen iragankor bat eta bi azken xedapen ditu. Era berean, Ikastetxeen Zuzendari jaunak prestatutako memoria bidali da.

1. artikulua Arauaren xedea zehazten du, hots, landa eremuko herrietan, herriaren alde zaharrean edo eraikuntzarako prestatuta dauden hiri zonaldeetan kokatzen diren Haur Eskolek edota biztanleria berezi baten ezaugarriei edota soziodemografi-koei erantzuna ematen dietenek bete behar dituzten gutxieneko eskakizunak xedatzen ditu.

2. artikulua ikastetxe horietan jarri beharreko instalazioak eta baldintza materialak zehazten ditu: baldintza orokorrak eta berariazkoak adin talde bakoitzarentzat.

3. artikulua indarrean dagoen legeriari jarraiki horrelako ikastetxeek bete behar dituzten bestelako eskakizunak aipatzen ditu: eskakizun higienikoak, osasunekoak eta irisgarritasun, bizigarritasun eta segurtasun akustikoak.

4. artikulua adin ezberdinetako ikasleak talde berean jartzeko bete behar diren baldintzak zehazten ditu.

Xedapen iragankorrak xedatzen du arau hau indarrean sartu aurretik aurkeztutako ikastetxeen eskariak arauak jasotzen dituen eskakizunen arabera erabakiko direla.

Lehen azken xedapenak ebatzen du sailak Aginduak esaten duena (unitate bakoitzeko gehieneko haur kopuruari buruz) moldatzeko eskubidea izango duela ikastetxeko biztanleriaren ezaugarrien arabera. Bigarrenak araua indarrean sartzea baimentzen du.

III.- BALORAZIOAK ETA PROPOSAMENAK

Aztergai dugun Agindu proiektuak salbuespen batzuk gehitzen dizkio 215/2004 Dekretuak haur eskolak baimentzeko zehazten dituen eskakizunei. Arau hau beharrezkoa da salbuespen egoerei erantzuna eman ahal izateko eta, hortaz, Kontseiluak uste du, agindua denez, zehaztasun maila handitu behar dela.

Horrela, 1b) artikulua zehazten dituen hainbat baldintza ez dira zehatzak Kontseiluaren ustez. 04/02 Irizpenean esan genuen bezalaxe, *“Dekretuan zehazten diren baldintzak moldatzeko irizpideak ezartzea landa eremuetan kokaturiko zentroentzat edo hiri eremu finkatuetaentzat, baldintza horiek betetzea zailtzen badute.”* Bestalde, egokia litzateke *“biztanleria berezi baten ezaugarriak edota soziodemografikoak”* esamoldearen esanahia argitzea ez baita inongo argibiderik ematen ezaugarri horiei buruz.

Testu artikulatuari iradokizunak

2.1 c) artikulua: Ez da zehazten jolas eremuaren gutxieneko azalera. Horrela, Dekretu orokorrean eskakizun hau jasotzen da: *“ 75 m² baino txikiagoa ez den azalera sei unitateko; azalera 10 m²-tan handituko da unitate berri bat gehitzen den bakoitzean”*. Gure ustez, gehiago zehaztu behar da eskakizun hau.

4. artikulua: 215/2004 Dekretuak ikasgela bateko 0 eta urtebeteko haurren gehieneko kopurua 7 dela xedatzen du. Kontseiluak ez du arrazoirik ikusten ratio hori 10era igotzeko.

Bestalde, lehen paragrafoa nahasgarria da: “*adin ezberdineko ikasleen kopuruak dekretu honetan aurreikusten den gehienezko kopuruaren erdia baino txikiagoa izan behar du*”. Gure iritziz, 1/10 gehienezko ratioa dela xedatzen bada, ez da ulermena zailtzen duen beste argibiderik gehitu behar.

Lehen azken xedapena: Lehen azken xedapenak ebatzen du sailak Aginduak esaten duena (unitate bakoitzeko gehienezko haur kopuruari buruz) moldatzeko eskubidea izango duela ikastetxeko biztanleriaren ezaugarrien arabera.

Dekretuan ikasgela bakoitzean egon daitekeen gehienezko haur kopurua behar bezala zehaztuta dagoela iruditzen zaigu. Gainera, ikastetxe jakin batzuen salbuespenak ere aipatzen dira. “Biztanleriaren ezaugarrien” araberako berariazko eskakizunak ezartzea beharrezkoa dela ikusten bada, berezitasun horiek testu artikulatuan zehaztu beharko lirateke.

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratzen da.

Bilbo, 2007ko abenduaren 14a

IDAZKARI TEKNIKOA,

Sinaturik: : Eva Blanco

Ikus-onetsia:

PRESIDENTEA

Sinaturik: : Konrado Mugertza

EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILBURUA.